

# proiektu global bat: integrazioa

Ikus **Politika Hiztegia** (UZEI/Elkar, 1980) zer den integrazioa. Ondo dago, inposaketarik ez dela egongo, esatea, Euskadi birreuskalduntzeko. Baina zenbait inposaketa modu egon beharko duela, denok dakigu, birreuskalduntze asmoak efektiboak izango badira. Ezer lortzekotan, integrazioa eragingo duten kanpoko faktoreak beharko dira. Eta, bigarren, kontzientziatiko edo norberagandiko faktoreak beharko dira: helburuaren kontzientzia, gogoia.

## integrazioa

Mila aldiz eta mila eratan esan da, komunitate txikitua gara. Euskal Herriaren oinarri-oinarritzko problema bere zeharoko desintegrazioa dela.

Euskara jakin nahiko luketenen zifrak oso altuak dira Euskadin, inkestek diotenez, jakin badakigunonak franko apalak diren moduan. Laster jaitsiko dira haiek ere.


Baina, desanimatuko diren ala ez, zer da jakin nahi harek funtsean adierazten duena? Horiek ez dute euskara jakin nahi, hizkuntza zahar, benegarri eta ez dakit nolako bat omen delako, hemen daudelako eta integratu egin nahi luketelako baino. Integrazio bide gisa nahi dute euskara. Eta euskara ikasteko, nekoso denez, desanimatu egingo balira ere, integratu nahiak ez luke sentidoa galduko. Alde horretatik motibatu beharko da euskarari ofizialki laguntzea, arrazoi kulturalen eta historikoen aldetik baino gehiago.

## PNVeren Agiria

Ez dago banatzerik euskara indartzeko asmoa (kasuan, bi-

rreuskalduntzeko) eta integrazioaren ideia. Elkar esplikatzen dute.

Ez dut ezer berririk esaten. Euzko alderdi Jeltzalearen **Jokabidea** Agirian, 1977, 25, ederki



azaltzen da birreuskalduntze/ integrazio lotura hori; «Propugna (EAJ) la Ikastola Nacional como medio de integración cultural de todos los vascos».

Lastima da idea hori, okasioa etorri denean, euskararen aldeko eta birreuskalduntzeko kanpainen, Parlamentuan eta, ez gehiago desarroilatu izatea.

## Proiektu sozial orokar batetan

Integrazio kulturalak integrazio sozial orokar bat eskatzen du. Hau da, euskararen bidez bakarrik ez da lortuko integrazioa. Ezin esan genezake guk integrazio programa global hau nola taxutu: Probintziak elkarren artean, probintzia eta hiriburua, auzoak eta hiria, etab., urbanismoa integrazio arazo bezala, abusadio antiekologikoak desintegrazio faktore bezala, etab. Politikoen lana da hori. Alderdien eta ideologiaren arabera desberdinak izango dira proiektuak. PNVeren aipatu Agirira mugatuz, bada han holako proiektu batetan artikulatu ahal izango litzatekeen nahikoa puntu: ik., adibidez, **Economía, Sociedad y Cuadro de Vida** atala (or. 117 hur.). Printzipio gisa ere: «el PNV aspira a la constitución de un orden socializado, que permita la configuración de una sociedad liberada de toda forma de opresión y el establecimiento de unas relaciones solidarias entre los hombres de la comunidad vasca y entre ésta y la comunidad internacional» (or. 71/72).

Barkaziorik ez lukeena, beren buruak sozialista aitortzen dituzten Alderdiak planteamenduok ez gehiago desarroilatzea litzateke.

JOXE AZURMENDI